

Demokrazia Kataluniarentzat

Demokrazia Europarentzat

Urriaren bata mugarra izan da Europako demokraziaren eta askapenaren historian. Poliziaren basakeriaren aurrean 2,2 milioi katalanek bozka eman zuten mundu osoaren begien aurrean. Munduko egunkari garrantzitsuenek iritzi bereko irakurketa inprimatu dute euren lerroburuetan eta azaletan. The Guardian, Le Figaro, The Independent, The Daily Telegraph, Libération, The Financial Times, Frankfurter Allgemeine Zeitung, Corriere della sera, La Repubblica. Argi utzi dute: bozkatzaile baketsuen aurrean, 78ko erregimenaren indarkeria basatia dago.

Urriaren bateko 840 zaurituak ikusita, geure burua interpelatuta sentitzen dugu. Epailtzak, klase politikoak eta poliziak bozkatzea eragozten saiatu ziren, baina ehunka milaka bozkatzailek bozkatzea lortu zuten. Baietz bozkatzea eragozten saiatu ziren. Ezetz bozkatzea eragozten saiatu ziren. Balio gabe edo zuri bozkatzea eragozten saiatu ziren. Aktiboki edo axola gabe abstenitzea. Baina katalanek bozkatu zuten. Masiboki bozkatu gainera. Honengatik guztiagatik zuzenki deituak sentitzen gara. Ezin dugu herri oso bati egindako horrelako gehiegikeriarik onartu. Demokrata gisa, ezin dugu milioika katalanen eskubide zibil eta politikoen urraketa onartu. Eta 78ko Erregimenaren menpe oraindik bizi garen pertsona gisa, Bartzelonan edota Murtzian adierazpen askatasuna, antolaketa askatasuna eta jendarte bakoitzak bere bizitza eta munduko bere zatitxoa nahi duen bezala antolatzeko eskubidea urratzen dituen estatu hau desmunta dadila eskatzea da gure eginbeharra. Gure geure interes pertsonalarengatik bakarrik bada ere.

Duela bi urte, 2015eko uztailean, Europako herriok ez genuen behar bezalako maila eman. Austeritate planen kontra gehiengo handiz bozkatu zuten milioika greziarren gaineratik pasatzen utzi genituen Europako boteretsuak. Egun, pobretuenek pobrezia jaso dute eta aberastuei aberastasuna ematen diete Grezian. Ezin da berriro gauza bera gertatu. Inork ezin du Kataluniaren etorkizuna erabaki han bizi diren pertsonen gaineratik. Ez Madrilgo epaitegiek, ez gurutzontzietako poliziek, ez boteretsuen esanetara dauden komunikabideek. Hala erakusten digute urteetako —eta pasa den asteburuko— kultura politikoaren ariketak, eguneroko auto-antolaketa horizontalak eta demokraziagileak. Behetik eraikitako eraldaketa politiko baketsurako ikastetxe bat dira egungo Herrialde Katalanak.

Bukatzeko, ez dezagun ahaztu Gironara hautestontziak lapurtzera joandako poliziak bidaltzen dituen erregimena. Bartzelonako amonen buruak urratzen dituen erregimena. Eskoletako jolastokietan boz-emaileei eskuak zapaltzen dizkien erregimena. Madrildik, nafarron borondatearen gaineratik agintzen duen erregimen bera dela. Kasu, beraz. Gaur katalanak zauritzen dituzte. Bihar gu geu izan gaitezke. Geure etorkizuna Katalunian ere jokutzen da.

